



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)

© Testua: Antton Irusta  
© Irudiak: Enrique Morente  
© Argitalpen hau:  
2020, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.  
Legizamon poligonoa  
Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.  
48450 Etxebarri  
Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-53-7  
Lege-gordailua: M-24920-2020  
Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2020ko azaroa

Sailaren zuzendaritza:  
Joseba Santxo eta Maite Malagón  
Edizioa:  
Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja  
Errealizazioa:  
Josu Goikoetxea  
Zuzenketa:  
Irukk Itzulpenak  
Arte-zuzendaritza:  
José Crespo eta Rosa Marín  
Proiektu grafikoa:  
Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,  
Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren  
lehengaiak birziklagarriak dira,  
eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren  
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako  
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola  
erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea,  
haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat  
fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra  
(Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

# **Mundua bete ipuin**

## **Erantzunen liburua**

Antton Irusta

Irudiak: Enrique Morente

begiko



*Behin batean, Zamudioko Aretxarte  
bakelekuari darion lilurak bereganatu  
ninduen, eta ipuin sorgindu hauek idaz-  
ten lagundu zidan. Espero dut, irakurle,  
Aretxartek niri inspiratutako ipuinok  
zure gogokoak izatea, eta irakurritakoan  
zure munduaren parte bilakatzea.*



# Sarrera

Munduko ipuinak eta ipuinen mundua. Bi- 9  
biak topatuko ditu irakurleak liburu honetan,  
beste kontu jakingarri eta aberasgarri askore-  
kin batera.

Gizakiak berezkoa izan du beti bere burua-  
ri galderak egitea, ulertzen ez dituen gertaka-  
riak argitze aldera. Eta hasierako garaietan ez  
zen izan zientzia galdera horien erantzulea,  
mitologia baizik.

Ipuin mitologikoak dira mundua interpre-  
tatzeko eta ulertzeko erarik zaharrena. Za-  
harrena eta sortzaileena, ipuin mitologikoak  
pertsonaiak, irudiak, ideiak eta harreman li-  
luragarriak sortzeko iturri agorrezina baitira.

Izaki mitologikoetan nahasian ageri dira jainkoak eta gizakiak, jainko ahalmenak eta giza grinak, paisaia errealak eta irrealak, loria handiko egitadak eta ekintza ilun galgarriak.

10 Gainera munduko zonalde bakoitzean mitologiak kolore eta ezaugarri bereziak hartu ditu, berez joria den mundu zoragarri hori are aberasgarriago bilakatur.

Liburu honetan bost kontinentetako ipuinak bildu ditugu: Europa, Afrika, Asia, Amerika (Ipar eta Hego) eta Ozeania; Euskal Herritik hasita, jakina, gure kulturaren ondare mitologiko ezin interesgarriagoa baitago.

Toki horietako hiruna ipuin aukeratu ditugu bildumatxo honetarako, eta guztiak dira, zelanbait, gizakiak noizbait egindako galderei mitologiak herri jakintzaren bitartez emandako erantzun miragarriak. Ikasi eta gozatu.



# **Euskal Herriko ipuinak**



## Ardiak eta belarra

Behin, artzain batek artaldea larrera eram- 13  
man zuen, oso belar ona zegoen toki batera,  
eta ardiei esan zien:

—Larre ona daukazue gaur, eta nahikoa  
jandakoan, etorri etxera.

Iluntzean etxera itzuli ziren ardiak, eta  
nagusiak galdetu zien:

—Nahikoa jan al duzue?

—Batere ez dugu jan —erantzun zioten  
ardiek.

—Zer, bada?

—Jaten hasten ginen bakoitzean, «au-  
rrera eta goxoago, aurrera eta goxo-  
ago» esaten zigun belarrak, etaaaa... egun

guztian ibili eta ibili, ez dugu ezertxo ere jan.

—Ez zarete tonto txarrak —esan zien artzainak—; hurrena hori esaten dizue-  
nean, «bertan goxo» esan eta bertan gelditu  
zaitezte nahikoa jan arte.

14 Hurrengo egunean, berriz ere joan ziren  
ardiak larre-toki on hartara, eta belarra ho-  
nela esaten hasi zitzaien:

—Aurrera eta goxoago, aurrera eta  
goxoago...

Baina oraingoan ardiek erantzun zuten:

—Bertan goxo, bertan goxo...

Iluntze hartan nahikoa janda itzuli ziren  
etxera.

Garai hartan izaki bizidun guztiek baze-  
kiten hizketan: belarrek, sasiek, arbolek eta  
animaliek. Guztiek, goroldioak izan ezik. Bes-  
te izaki guztiak bildu ziren goroldioari hiz-  
ketan irakasteko, eta horretan hasi zirenean

denak mutututa gelditu omen ziren. Horregatik, geroztik, izaki horiek denek ez dute gehiago hizketan egin.

Batzuek esaten dute oraindik ere ardiek eta belarrak hitz egiten dutela elkarrekin. Ardiak lanera ateratzen direnean, belarrak esaten omen die:

15

—Aurrera eta goxoago, aurrera eta goxoago...

Ardiak han ibiltzen dira pixka batean batetik bestera, eta azkenean «beeee, beeee...» eginez bertan gelditzen dira.

«Beeee, beeee...» horrek «bertan goxo, bertan goxo» esan nahi omen du.

*Joxe Arratibelek bildutako ipuina*

## Erlearen ziztada

16 Aspaldi-aspaldi, Mari jainkosa berarekin zeuden animalia guztiei begira zegoen. Haren begirada ontasunaren eta edertasunaren ispilu zen. Animalia bakoitzak bere itxura eta trebetasunak zituen, beraren beharrei egokituak.

Mari jainkosak esan zien:

—Bakoitzari izaera desberdina eman dizuet, neronek hala nahi izan dudalako, zuetariko bakoitza berean ondo bizi dadin. Hala ere, dohain bat eman nahi diot bakoitzari. Beraz, dohain bereziren bat nahi duenak hala eska dezala, eta hura jasoko du.

Ikaragarrizko iskanbila sortu zen animalien artean. Banaka-banaka, han joan zitzaizkion guztiak dohain eske, eta bai jainkosak eman ere. Guztiek aprobetxatu zuten eskaini zitzaien aukera hura: piztia handiak lehenengo, basapizti harroak bigarren, hegazti harrapariak atzetik, etxe-abere geldo eta lasaiak ondoren, txori kantariak geroxeago... Denak pasatzen joan ziren, eta halako batean erleari ere iritsi zitzaion bere txanda. Mari jainkosak ezta egiteko dohaina eman zion aurretik. Eta Marik honakoa galdetu zion:

—Zer nahi duzu zuk? Ezta badaukazu, gizakien artean estimatuena den elikagaia. Nahi baduzu, urrezko etxetxo bat emango dizut ezta gordetzeko.

—Ez, Mari jainkosa —erantzun zion erleak—. Gizaki orok izango du nire ezta harrapatzeko gutizia, eta areagotu egingo





duzu urrezko etxetxo bat ematen badidazu. Emadazu arma bat gizakiengandik babesteko, eztitara datozenerako.

—Zuk nahikoa ezti izango duzu, eta gizakiei emateko adina ere bai —esan zion Marik—. Eta, gainera, eskatu didazuna ere emango dizut.

19

Horrela, eztena ipini zion Marik erleari. Baina Jainkosak, erlea bihotz txarrekoa izan zelako zigortu nahian, erabaki zuen erlea, norbait ziztatu bezain laster, hil egingo zela.

## Zelan zabaldu zen garia Euskal Herrian

20 Antzina, Muskizko kobazulo batean basajaunak bizi omen ziren. Han, inguruko mendi gainetako lurrak erabilita, sekulako garitzak biltzen omen zituzten. Beheko lurretan kristauak bizi omen ziren eta oraindik ez omen zuten garirik ereiten, hazirik ez zeukaten eta.

Behin, Martintxo abarka handi batzuk jantzita joan omen zen Muskizko kobara eta, hango gari pilak ikusirik, zeinek salto handiagoa eman egin zuen apustu basajaunekin. Basajaunak, beren aldetik, erraz saltatu omen ziren. Martintxo, berriz, gari pilaren erdira erori omen zen, baina abarkak gari-alez bete zituen.

Gero, handik alde eginda Martintxo etxera zihoala, basajaun bati bururatu zitzaien hark abarketan gari-hazia zeramala, eta aizkora txiki bat hartu eta jaurti egin zion; ez zuen harrapatu, ordea.

Garai hartan, kristauek ez omen zekiten garia noiz erein. Halako batean Martintxok basajaun bati aditu omen zion nola zioen, algaraz:

21

—Ja, jaaai! Hau balekite, erabiliko luke-  
te, bai:

*Orri irtetean, artoa ereiten.*

*Orri erortzean, garia ereiten.*

*Eta San Lorentzotan, arbia ereiten.*

Horrela zabaldu zen garia Euskal Herrian. Gaur egun etxean jaten dugun ogia Martintxori esker da.